

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideen bitartez, balorezko proposamena garatu, bezeroengana iritsi, bezeroekiko harremana mantendu eta, diru sarrerak lortu ahal izango ditu gure enpresak. Funtsezko baliabideak dira: Baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak.

### MANDEKOREN KASUAN:

Esan bezala, funtzeko baliabideak lau kategoria desberdinetan banatzen dira, eta gure proiektuan ere horrela izango da. Lehenik, gure produktua lokal batean salduko genuen. Orduan, gure baliabide fisikoak izango lirateke, batetik, lokala non gure denda fisikoa jarriko genuke. Eta beste alde batetik, kontrolei plastikoa instalatzeko beharrezko makineria, zehazki aire beroko pistolak eta azkenik, plastikoa bera, PE (polietilenoa) eta akaso PP (polipropilenoaren bat) izan daitekena.



Bigarrenik, baliabide intelektualak eta giza baliabideak ere beharrezkoak izango lirateke. Alde batetik, gure sormena plastikoetan diseñuak egiteko, hau da, diseinatzeko ezagutzak. Bestalde, izan behar ditugun salmentetarako eta antolaketarako abileziak ere ezinbestekoak dira aurrera egiteko proiektuarekin.

Azkenik, finantza-baliabideak ere garrantzitsuak dira, hasiera batean gainera proiektua hasteko ezinbestekoak. Horien artean, hasiera batean proiektuarekin hasieran, bakoitzaren aurrezkietatik abiatuko ginateke, eta horiek ondoren lortutako diru sarrerekin konpentsatuko genituzke.